

## ARGIBIDE zerbitzuak 600 kontsulta baino gehiago jaso ditu urte erdiko epean

**Donostia - 2015ko Ekainaren 25a** - Argibide zerbitzua orain dela urte bete sortu zen, Gipuzkoako enpresek bere nazioartekotzeko prozesuan izaten dituzten arazoak konpontzeko. Zerbitzu honek erantzun profesional eta espezializatua eskaintzen du Gipuzkoako Bazkundeko disziplina anitzeko lan taldearen bitartez, erantzun azkarra eta pertsonalizatua.

Urte erdiko epean Argibide zerbitzuak 632 kontsulta jaso ditu. Dokumentazioarekin, aduanekin eta muga-zergekin lotutako gaiak izan dira harreta gehien eskatu dutenak, zehatz mehatz herrialde konkretu batera satzeko muga-zergak eta herrialde horretarako dokumentazioa. Gipuzkoako enpresek euren produktua bidaltzen duten herrialdearen ezaugarriak ezagutzeko beharrean du islada eskaera zabal honek, ez baita erraza merkantzia bezeroen eskuetan jartzea ez bada herrialdearen administrazio prozedura ezagutzen. Iran da adibiderik argiena, Iranek duen embargo ekonomikoa, kontsulta asko jasotzen dira produktuen erabilera bikoitzaren arazoa nola konpondu jakiteko. Enpresek euren produktua militar merkatura ez dagoela bideratuta egiaztatu behar dute, merkatu zibilera bideratuta dagoela adierazi behar dute, hau da, erabilpen bakarra duela, eta zerbitzu honetan produktu hori Irango merkatuan modu egokian sartzeko pausuak zeintzuk diren esaten zaie. Eskaera handia duen beste gai bat nekazaritzako elikagaiak Estatu Batuetara bideratzeko informazio da, baldintza oso zorrotzak bete behar baitira esportazio mota hau egiteko. Ukrainiako gatazkak kontsulten maila gorena ekarri zuen, gatazka honen ondorioz embargo bat izango zenaren beldurra sortu zelako. Gipuzkoako enpresa askok erabili zuten Argibide zerbitzua gatazka honek Ukrainiako eta Errusiako bezeroekin dituzten izapideetan zein eragin izango zuen jakiteko.

Dokumentazioa, aduanak eta muga-zergen gaiez gain, herrialde eta merkatuen inguruko informazioa ere eskatu da, jarraian gai juridikoekin eta esportaziorako dauden laguntzekin erlazionatutako gaiak egongo lirатеke. Eta interes gutxien sortu duten gaiak logistika eta garraioa eta inbersioen ingurukoak izan dira.

Enpresen ezaugarriei dagokionez, egiaztatzen da urte ta erdi honetan kontsulta gehien egin dituzten enpresak 2,5 eta 5 miloi euro artean fakturatzen dutenak direla, atzetik 500.000 euro baino gutxiago fakturatzen dutenak egongo lirатеke, eta aktibitate eta eskaera gehien izan dituen hilabetea maiatza izan dela esan daiteke, bai 2014ean eta baita 2015ean ere.

Argibide zerbitzua Gipuzkoako Bazkundek, Eskualdeko Garapen Agentziek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sinatutako hitzarmenean barneratuta dago, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak orain egun gutxi onartu zuen hitzarmenean. Akordio honen bitartez, nazioartekotzeko 300 ekintza baino gehiago jarriko dira enpresa txiki eta ertainen eskura. 2014ean bezalaxe, hitzarmena 750.000 eurokin finantziatuko da eta ekintzen artean prestakuntza, diagnostikoak, jardunaldiak, feriak, alderantzizko misioak eta kanporako misio komertzialak egongo dira, besteak beste.

**Informazio gehiago nahi izanez gero:**

Irune Bengoetxea

[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)

943 000 310 / 688884347